

barkatu, ama


Anari

Azkoitiko Gaztetxea bizirik zegoenean 14 urte zituen Anarik. Beraz, ez zituen bizi gaztetxe haren inguruko gora-behera guztiak. «Etxean ez zidaten uzten gaztetxera joaten». Musikarekiko grina, ordea, barruan zuen. Itoizen *Espaloian* izan zen haren lehen zinta. Geroago, musika entzuteaz gain, egin ere egin zezakeela deliberatu eta Psych Out eta Ehun Ginen taldeetan bateria jo zuen. «Psych Out-en jotzen zuten orain Akauzazte-n daudenek. Aditzen genuena islatzen genuen: Birthday Party, Australiako rocka... Ehun Ginen zen beste alderdi bat: Sonic Youth, Giant Sand...». Duela bi urte eta erdi bakarkako bidea ireki zuen, eta orain lehen diskoa, apartekoa, atera du. Filologia Erromaniko karrerako azken azterketa egin zuen egun berean elkarrizketatu genuen.

«Argazki bat da diskoa, nire bizitzako etapa baten isla»

■ **Noiz hartu zenuen bakarkako bidea?**

Duela urtebete eman nuen lehen kontzertua, Lasarten JC Perezekin jo baino hilabete lehenago. Abestiak egiten beste urte eta erdi lehenago hasi nintzen. Banituen abestiak alde batetik, eta hitzak bestetik. Asko kostatu zitzaidan biak elkar-



ANDER GILLENIA

Anari

Azkoitiko Gaztetxea bizirik zegoenean 14 urte zituen Anarik. Beraz, ez zituen bizi gaztetxe haren inguruko gora-behera guztiak. «Etxean ez zidaten uzten gaztetxera joaten». Musikarekiko grina, ordea, barruan zuen. Itoizen *Espaloian* izan zen haren lehen zinta. Geroago, musika entzuteaz gain, egin ere egin zezakeela deliberratu eta Psych Out eta Ehun Ginen taldeetan batera jo zuen. «Psych Out-en jotzen zuten orain Akauzate-n daudenek. Aditzen genuena islatzen genuen: Birthday Party, Australiako rocka... Ehun Ginen zen beste alderdi bat: Sonic Youth, Giant Sand...». Duela bi urte eta erdi bakarkako bidea ireki zuen, eta orain lehen diskoa, apartekoa, atera du. Filologia Erromanikoko karrerako azken azterketa egin zuen egun berean elkarrizketatu genuen.

«Argazki bat da diskoa, nire bizitzako etapa baten isla»

■ **Noiz hartu zenuen bakarkako bidea?**

Duela urtebete eman nuen lehen kontzertua, Lasarten JC Perezekin jo baino hilabete lehenago. Abestiak egiten beste urte eta erdi lehenago hasi nintzen. Banituen abestiak alde batetik, eta hitzak bestetik. Asko kostatu zitzaizkidan biak elkar-tzea, ez nuen asmatzen nola egin, zaila zen.

■ **Disko honetako abestiak amodiozko harremanei buruzkoak dira. Zerk erakartzen zaitu mundu horretatik?**

Ez dakit, sentitzen dudanari buruz idazten dut, eta pentsatzen dut nire bizitzako denboraldi batean hori sentitu dudala. Argazki bat bezala da diskoa, nire bizitzako etapa baten isla. Orain beste hitz mota batekin ari naiz lanean... Neuk ere orain ikusten dut gehiegizkoa zela.

■ **Zure hitzetan zenbat da erreal eta zenbat fikzioa?**

Badira gauza errealak, horixe baietz. Galderak, beldurrak, ahanzteko gogo... Adibidez, *Desnúdame desnúdame* abestiak inkomunizazioari buruz hitz egiten du, zure begiek esaten dute ahoak isiltzen duena, baina berriz erortzen naiz zuloan. Espiral bat da. Oso gustura nago hitz horiekin. Eta baita *Galderak 2* kantuko hitzekin ere.

Gertatu zait, gainera, beste batek egindako hitza ezin kantatzea. Jon Maiak egin zidan kantu bat, oso polita, baina ez zuen nitaz hitz egiten, eta oso zaila egin zitzaizkidan kantatzea. Ni sartzen naiz kantan. Horregatik da.


■ **Kantatzeko eran nabaritzen zaizu...**

Bai, esaldi batzuk ozenago egiten ditut... Hor sekulako aldea dago. Benetan sentitzen baduzu kantatzen duzuna, hori geratzen da... Bai, beharrezkoa da sinestea. Niretzat ezberdinak dira poema kantatu bat eta kantu bat. *Hegoekira begira* poema narratu bat da, eta kantatzekoan nabaritzen da poema bat dela. *Desnúdame desnúdame*, aldiz, horrela egindako kantua da eta tentsioa du.

■ **Zein momentutan idazten duzu?**

Zuk ez duzu aukeratzen momentua, berak aukeratzen zaitu. Askotan autoan noala idazten dut, edo mendira noala... Fernando Pessoa esaten zuen sentitzen duzunean ezin duzula idatzi. Nik uste dut horrela dela. Gogoetak gertaerak pasatu ondoren idazten dira.

■ **Biluztea ez da batere prozesu erraza. Euskal Herrian ere oso gutxi dira barne sentimenduez,**



«Ez dakit zilegi den emozio exhibizioa»

■ **norberaren garrantasunez, hitz egiten duten artistak. Zuk nola daramazu?**

Nik ere pentsatu dut horretan. Ez dakit zilegi den edo ez den. Izan ditut nire kezak nirekiko eta inguruko jendearekiko. Beste jendea ere inplikaturata dago nire kantuetan, eta zein punturaino da zilegi exhibizionismoa. Sentitu izan dut beldurra. Diskoa ikusita hori sentitzen dut.

■ **Nola definituko zenuke egiten duzun musika?**

Aukeran, ez nuke definituko. Suabearen eta gordinaren arteko zerbait bilatu.

«Duela lau urte arte gorroto nituen emakume abeslariak»

■ **Zer musika entzuten hazi zinen? Zeinek markatu zaitu?**

Nire lehen zinta Itoizen *Espaloian* izan zen. Ruper Ordorika eta Mikel Laboa asko entzun dut. Eta gero Sonic Youth, Giant Sand, Dream Syndicate, Neil Young, eta R.E.M. denbora askoan izan da niretzat oso garrantzitsua. Badut R.E.M.ekoek beste izen batekin Londresen taberna batean grabaturiko zuzenekoak, eta hortik asko ikasi dut akustikoarekin. Nick Cave eta Tom Waits dira gehien entzun ditudanak, eta azken boladan flamenkoa.

■ **Euskal Herrian topatzen duzu erreferentziarik? Laboa asko gustatzen zait, eta uste dut Laboa-**

ren puntu bat badudala diskoaren bigarren zatian. Enekok abesten duen kantuan, eskusoinuan. Xabier Montoia asko gustatzen zait, eta Mark ere bai, Bap!!...

■ **P.J. Harvey-ren antza duzula esaten badizut, zer diozu?**

Asko entzun dut konparazio hori. Bada, uste dut esaten dela neska naizelako, baina ez dut uste antza dudarik.

■ **Eta oihu horiek?**

Hor agian bai. Baina P.J. Harvey epikoagoa da. Nik uste dut Kristin Hersh-en antz handiagoa dudala. Ez dakit, oso zaila da norberak esatea zeinen antza duen, zuretzat hain zeurea da...

■ **Eta emakumezko erreferentziak izan dituzu?**

Ez, eta gainera orain dela lau urte arte gorroto-tzen nituen emakume abeslariak. Neska abeslariak dituzten taldeak ezin nituen entzun: L7, Babes In Toyland, gehienbat agudoak gorrotatzen nituen. Hasi nintzen P.J. Harveyekin...

■ **Patti Smith?**

Ez dut asko entzun, eta pentsatzen dut orain entzunez gero gustatuko zaidala. Lehen Eddie Bricket entzuten nuen garai batean, Barbara Manning... Eta The Breedersen diskoa, *Last Splash*, asko gustatu zitzaidan. Baina P.J. Harvey da *laostia*, gehiegizkoa... Hori da rock akustikoa.

■ **Gaur egun sortu diren artista hauek, Palace, Mark Eitzel, Tindersticks, Red House Painters... gustukoak dituzu?**





ANDER GILLENIA

en biluztea, onismoa»



Tindersticks pilo bat gustatzen zait. Bigarren diskoa izugarri gustatu zait. Negu osoan entzun dut. Euria egiten duenean, Tinders-ticks. American Music Club ere bai, baina orain ez zait asko gustatzen. *United Kingdom* eta haiserako diskoak bai. Eitzelen zuzeneko entzun dut, gustatzen zait duen tentsioa, baina oso gogorra da, mugan dago denbora guztian.

■ **Hiru euskal disko?**

Mikel Laboaren edozein, Bap!!-en *Lehertzeko garaia*, eta M-aken *lehen*, *MMMMM. Ehun ginen* Euskal Herriko kanturik onenetakoa da.

■ **Nazioarteko hiru disko?**

Nick Cave-ren *Let love in*, Palace Songsen *Hope*, eta Leonard Cohen-en edozein.

■ **Ikusi duzun kontzerturik gustukoena?**

Laboarenak oso gogorrak dira niretzat. Enrique Morente eta Lagartija Nick Logroñon ikusi nituen eta asko gustatu zitzaidan. Kontzertuak nik beste gauza batzuekin lotzen ditut. Lehen asko joaten nintzen kontzertuetara eta orain ez naiz joaten.

■ **Une honetan gustura ikusiko zenukeen kontzertua?**

Nick Cave, P.J. Harvey...

«Futbolistak bezain aspergarriak dira musikariak»

■ **Elkarrizketa batean zenioen musika ez dela garrantzitsuena bizitzan, egiten dituzun gauzen artean beste bat baizik. Disko honek zerbaitean aldatu du filosofia hori?**

Ez. Nire buruaren zati bat da musika, ukalezina, beti egon da hor, betidanik entzun dut musika, baina uste dut musikak asko abstraitzen duela pertsona. Bizitzaz ahaztu eta musika bakarrik existituko balitz bezala. Une honetan garrantzia eman nahi diot bizitzari. Musikak izan behar du soinu banda, beste gauza batzuk gertatzen diren bitartean; niretzat musika izan da nagusia denbora luzean, eta orain bizitzaren soinu banda bezala ikusten dut.

■ **Melomanoak ez dituzu gustuko?**

Ez, lagun batek esaten zuen musikariak futbolistak bezain aspergarriak direla. Eta egia da, musikaz soilik hitz egiten duen jendea futbolistak edo futbolzale porrokatuak bezain aspergarriak da. Jendeak garrantzi gehiegi ematen dio musikari.

■ **Hasieran autoprodukzioaren bidea jorratzeko asmoa zenuen, eta eskaintza batzuei ezezkoa eman zenien.**

Bai, hasieran beldurtu nintzen, eta ez nuen argi zer ikusten zuen jendeak nigan. Egia esateko, hamar mila pezetarekin grabatzeko aukera izango banu, nik neuk grabatuko nuke, baina gero konturatu nintzen ezinezkoa zela. 150.000 pezeta gehiegi zen eta baztertu egin nuen ideia. Nik orain nahiago nuen bost kantuko maxi bat egin diskoa egin baino, baina disketeak diskoa nahi zuen.

■ **Zergatik onartu duzu Esan Ozenkiren eskaintza?**

Oso diskete handia delako alde askotatik. Puntu txiki batetik leku askotan daude. Gustatzen zait euren jarrera, adibidez diskoak merkatzeko. Disketeek beti dute produktuekin ari direlako itxura, baina zenbaitek badute arte saltzaileren itxura gehiago... Esan Ozenkin dabilen jendea oso sartuta ibili da musika munduan.

■ **Zergatik aukeratu dituzu Mikel Abrego (Bap!!) eta Xabi Strubell (Dut) diskoak grabatzeko?**

Intuizioagatik. Mikelen kasuan Ferminek esan zidan Mikel prest zegoela, eta nik ere pentsatua nuen hari esatea. Disko akustikoak egiten direnean jendeak hartzen du akustikoa oso modu klasikoan jotzen duen jendea, eta nik nahi nuen beste era batera egin. Euren taldeetan oso musika gogorra jotzen duen jendea nahi nuen. Iruditzen zait Xabik sekulako zentzu melodikoa duela.

■ **Zuzenekoak zer moduz joan dira?**

Nahiko ondo. Denetarik tokatu zait. Batzuetan «arraroa samarra zara» eta horrelakoak esan dizkirate, baina bestela, ondo... Gainera, nik aukeratzen dut non jo.

■ **Tabernetako giroa askotan ez da egokiena kantautoreentzat. Gertatu al zaizu jendearen marmarrak jasan behar izatea?**


Bai, eta kontrakoa ere bai, eta orduan benetan supermagikoa da. Tabernetan sentitu naiz ondoen. Eta ez banago gustura, ez daukat inolako arazorik hoge minutu jo eta alde egiteko.

■ **Zein da zure diskoak entzuteko momentua?**

Ez dakit, batek esan zuen goizaldeko ordu bietan entzuteko diskoa dela. Joe, goizeko ordu bietan non, tabernetan? Bai uste dut geratzeko eta aditzeko diskoa dela.



jon eskisabel



Anari

Anari

Esan Ozenki, 1997

Bidaia bat zure barrura. JC Perezekin batera emandako kontzertuan ezagutu nuen Anari, orain dela urtebete pasatxo. Bigarren kontzertua zuen, eta aurrean 400 pertsona izan arren, eroso aritu zen, esperientzia duten artistak bezala, barrutik sortzen dituen abesti gordinak eta intimoak azaleratzeko inolako konplexurik gabe. Urtebete geroago kalean du lehen diskoa, eta kontzertu hartan emandako inpresio ona biderkatu, hirukoiztu egin da.

Biluzteaz aparte, badu Anarik beste meritu bat: barregarri gelditu gabe biluztea, hain zuzen. Zenbait idazleren hitzak baliatuz, gizakion harremanetan ohikoak diren kezak, beldurrak eta arazoak planteatzen ditu Anarik, batzuetan era bikainean, *Desnúdame*, *desnúdame* eta *Tren bat zure barrura* kantuetan kasu.

Ez egin kasu azaleko irudi irribarretsuari, oker zaude doinu atseginak espero badituzu; barrukoak ahalegina eskatzen du, Anariren sekretuen konplizea izateko nahia. Hori egin ezean, atzera botako zaitu ziurren.

Ezin hobeto hasten da diskoa *Gure mundua* kantuaekin, single argi bat, berehala harrapatzen zaituen abesti horietakoa, *cello* eta *hammond*-aren distirarekin. *Minaren funtsa* da Anarik idatzi ez duen abesti bakarra —Jon Maiarena da—, baina ez da nabaritzen. *Galderak 1* da baikorra, baina baita flojoena ere, nire iritziz.

«Ahaztu beharreko gauzen zerrendan, izen bat zara orain, gaizki egindako gauzen artean, beste bat», dio Anarik (*H)erra kanta*-n. Pello Ramirezen eskusoinuak ukitu berezia, iradokitzailea ematen dio kantuari. *Eszeptikoarena* paraje lehorretan murgiltzen da, Anarik grina bereziz kantatzen du, eta beste intentzio aitorten bat dakarkigu: «Erabakiak hartu behar, bizitza horixe omen da (...) hobe da ez eginaz baino gaizki egindakoaz damutzea».

Tren bat zure barrura ederra da bere sinpletasunean, hitza zein musika aldetik. *Desnúdame*, *desnúdame* diskoko gailurra da, Anariren ahotsaren grina barruraino sartzen zaizu, eta azkenean haren hitzak laguntzea besterik ez zaizu gelditzen: «kenduizkidazu arropak, kenduizkidazu dudak, biluztu nazazu».

Galderak 2 ere betirako geratzen den abesti horietako bat da. Eskusoinuak berri distira egiten du, eta Eneko-ren (Bap!!) ahots grabeak ezin hobeto laguntzen dio Anariri. *Hegoekira begira* Akauzate taldearekin abesten zuen Anarik, eta berreskuratu du diskorako. Eta amaierara iristen gara instrumental batekin, zeinek sentimenduen muinerako bidaia den diskoan agertutako txoriak, autoak eta trenak biltzen dizkigun.